



# LE MONDE hauzitan



**Aldizkari honetan behin eta berriz aipatu delako, ANAITASUNAREN irakurle ohartuak ba du LE MONDE Frantziako arrats-egunkari famatuaren berririk.**

**Frantziako egunkaririk hoberena, Europakoan artean prestigiorik handienetakoa, LE MONDE, ofizialki ez bada ere, kanpora begira, Frantziaren irudia agertzen duena da, eta, barruan, prentsako lagun guztientzat langailu hautatua.**

**LE MONDE egunkariak duen arrakasta egia eta askatasunaren defendatzaile izatearen izenari zor dio. Gobernariak bezanbat politik-, kultur- eta negozio-gizonek erreferentzia beharrezkotzat jotzen dute beren lanetarako LE MONDE.**

Ba, LE MONDEn mitoa hankaz gora bota nahi lukeen liburu bat atera da. Haren sinesgarritasuna kolokan jarri nahi lukeena.

“LE MONDE tel qu’il est” liburu atera du Michel Legris jaunak. Legris hau 17 urtetan LE MONDEn kolabora-

tzaile izana da. Hasarre atera zen egunkaritik, eta tribunale-tan dabilta oraindik. Liburu bera arinegia omen da, hasarrez eta bekaizkeriaz egina.

Dena de, liburuaren balioa eta egilearen motibazioak aparte utzita ere, kasu honetan harritzekoena LE MONDE egunkariak berak hartu duen jokabidea da. Gogorki hartu du autore a LE MONDEK. Azalean bertan erantzuten diote egunkariaren fondatzaileak, egungo zuzendariak eta Idazle-Elkarteko Lehendakariak.

Erantzuleen eritzian, holatsuko eritziak LE MONDE ez baino autore a bera kakazten dutela egia bada, zergatik horren garrantzia handirik eman? Min eman dio liburuak egunkariari, erdi erdian jo du eta. Zein da, ba, liburuaren tesia? Legris jaunaren esanen arabera, Hubert Beuve-Méry fondatzailearekin LE MONDEk zuen profesionaltasun osoa, berri-emate objetiboa, ideologiazko neutralitatea...1969tik, hots, gaurko Zuzendaria den Jacques Fauvet sartu zenetik, hori dena galduz doa. Informazio zuzena eman ez baino izkutuko propaganda egiten duelako salakuntza da gogorrena.

Horren kupidagabeko erantzuna agerturik LE MONDEK lortu duena, zera da, alegia, liburuari ikaragarriko publikitate egitea, eta batez ere salakuntza horretan egiatik zerbait ez ote dagoenaren susmoa. Min gehiegi ez ote die gero egin? Zergatik ote? Ezkertiar sentikortasuna duenak analisi-ahalmen gehiago eta kolpeak hartzea larru lodiago behar omen du esan du NOUVEL OBSERVATEUR astekariak.

Sakrilegiotzat bailitzan bere kontrako atake LE MONDEK hartzea ez da oso ondo ulertzen ahal. Demokrazia batetan nahi dena ateratzerik ba dago. Tribunalak era zerbaitetarako daude, gainera. Hori baino bareago eta neurtuagoa zela uste genuen.

Alderdikeriaren eta partzialkeriaren akusazioak jarri du sutan LE MONDEko Zuzendaritza. Uste dugunez, salakuntza horiekin liburuaren autoreak LE MONDEren Ipar Ameriketarekiko sinpatiarik eza eta Mitterand eta Programa Bateratuaren aldekotasuna adierazi nahi ditu. Baina eritzien jabe izatea ez da alderdikoi izatea. Informazio “huts eta garbiaren” gain eraikitako egunkaririk ez dago. Mito hutsa da hori.

LE MONDEren irudia ez da horren erraz galduko. Panfleto bat baino gehiago beharko da. LE MONDEren informazioaren ugaltasuna, sanotasuna, xehetasuna, ekilibria, garbitasuna ez dut beste inon aurkitu. Eta LE MONDE, egunkarien munduan ezaguna denez, ez dago inoren zerbitzutan. Ez du atzetik edo azpitik ez agente politikorik ez ekonomiazkorik. Egunkari askea da, independentea.

Joan Mari Torrealdy.